

# **INDARKERIA SUFritu DUTEN URNIETARRAK ENTZUNEZ**

---

**AITORTZARAKO BIDEA  
ARGITZEKO IKASKUNTZAK**

---

Urnietako herritarren bizikidetza taldea

---

2023ko otsaila

Laguntzaileak:

**baketik**

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA

*Euskadi, ausolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



*Umetako*  
udala

## SARRERA

Urnietako bake eta bizikidetza talde herritarra ideologia, sentsibilitate eta biografia ezberdinetako pertsonak osatzen dute, urnietarrak izatea eta bakegintzaren inguruan lan egin nahi izatea dutenak amankomunean. Bertako kideek maila pertsonalean parte hartzen dute taldean, eta euren burua soilik ordezkatzeko dute. Bere lan guztia bolondreski egiten dute.

2016an hasi zuen bere ibilbidea talde honek Urnietan, ardura partekatu batek batuta: bakea, bizikidetza eta memoria, eta herrian bertan gai hau lantzeko helburua izan zen oinarria. Horrek mugituta aritu dira elkarlanean azken urteotan, oro har bakeari, eta zehazki Urnietako bizikidetzari euren ekarpena egiteko asmoarekin. Herritarrez osatutako taldea autonomoa da; partaideek egin beharreko lan-lerroak erabaki eta bideratzen dituzte. Bide honetan Baketik Fundazioaren laguntza ere badute, erraztatzaile lanak egiten.

Urnietan, beste hainbat herrietan bezala, askotariko sufrimenduak bizitako pertsonak bizi dira. Bizilagunak izan arren, ordea, askotan ez ditugu ezagutzen sufrimenduzko esperientzia horiek. Beste batzuetan, ezagutu arren ez gara hurbildu geure elkartasuna adieraztera, urteetako indarkeria eta tentsioek lubakiak sortu baitituzte geure artean.

Taldeak argi dauka indarkeriaren biktimek eta sufrimendua eragin duten bestelako egoerak bizi izan dituzten pertsonak aitortza eta erreparazioa merezi dutela. Urte hauetan guztietan izandako ikaskuntza eta hausnarketek bultzatuta, giza eskubideak oinarri hartuta, bide horretan taldeak bere ekarpena egin nahi izan du. Hasierako pauso bezala nolabaiteko sufrimendu bat jasan duten pertsonen bizipenak entzuteko helburua finkatu zen 2019an, pertsona hauekin batera aitortzaren bidean pausoak sustatzeko. Hala, "Sufritu duten Urnietarrak entzunez" ekimena jarri zuten martxan.

## EKIMENAREN HELBURU ETA IRIZPIDEAK

Beste udalerrri batzuetan ere egindako lanean inspiratuta, ekimen honen bidez entzuteko gune segurua eskaini nahi izan du taldeak, errekonozimendu pribatua eskainiz hautsitako harremanak berreskuratzeko.

Lanari ekiteko, ezer baino lehen irizpide, helburu eta metodologia bat landu eta adostu zuen taldeak. Lanketa honen emaitza bezala, ideia hauek finkatu ziren:

### ZERTARAKO:

- Sufritu dutenei espresatzeko gune seguru bat eskaintzeko.
- Herritar eta bizilagun bezala aitortza pribatu bat eskaintzeko.
- Hautsitako harremanak berreraikitze (nahi eta ahal dutenek).

### NOLA:

- **Lankidetz**a. Elkarrekin ikusiko da zer egin espresatzen dituzten bizipenekin.
- **Diskrezio**a. Topaketetako elkarrizketak ez dira grabatuko ez transkribatuko.
- **Informalitatea**. Toki goxo eta eroso batean egingo dira topaketak.

### NORTZUK:

**Limitazio bat.** Urnieta mailan ez dago zehaztuta giza eskubideen urraketen biktimak nortzuk diren (ez dago ikerketarik eginga, alegia). Bizitzaren eskubidearen urraketen biktimak badaude nolabait identifikatuta, baina beste guztiak ez.

**Biktimak eta sufritu dutenak.** Argituz elkarteak proposatutako sailkapena bere egiten du taldeak. Hala, eta laburki azalduta, badaude giza eskubideen urraketak pairatu dituztenak (biktimak) eta badaude beste sufrimendu batzuk pairatu dituztenak (ez dira biktimak). Taldeak biak hartzen ditu kontuan, eta bietako pertsonekin antolatu nahi ditu enkontruak.

**Irizpidea: aniztasuna.** Topaketetara gonbidatuko diren pertsonak aukeratzeko orduan, hauek bizipen aldetik aniztasun bat islatu dezatela topatu nahi da (sufrimendu mota, eragile... aldetik). Ez da aukeraketa errepresentatibo bat izango, eta irekia egongo da beti.

## METODOLOGIA

Lanari ekin baino lehenago, aipatzekoa da herritar taldean parte hartzen dugunok formakuntza eta gaitasunen garapena landu behar izan dugula urte hauetan zehar, hemen kontatzen den prozesuari ekin ahal izateko. Biolentziaren biktima izan direnekin eta sufritu dutenekin biltzeko, talde bezala eta pertsona gisa ere giza eskubideen arloan formakuntza jaso behar izan dugu eta inguruan bizi izan dugun biolentziaren nondik norakoengatik inguruko gogoetak ere sustatu eta landu ditugu.

Horrekin batera, beste esperientzietatik ere entzute-aktiboa, prozesu errestitutiboak eta errekonozimenduak egiteko formulak eta metodologiak ikusi eta ikasi behar izan ditugu. Urteetako bidea izan da formakuntza hau, talde bezala horrelako prozesu batean murgildu ahal izateko behar-beharrezkotzat jo duguna.

Urtetan zehar formakuntza bide hori eginda eta behin aurretik aipatutako irizpide horiek finkatuta, prozesuan parte hartzera gonbidatuko ziren pertsonen zerrenda osatzen hasi zen taldea, finkatutako irizpideetan oinarritua.

Pertsona hauekin harremanetan jartzeko orduan, taldearen lan-formula izan zen taldekideen kontaktu eta ezagunetatik abiatzea edo zirkulu sozialen bidez iristea eurengana. Prozesu honetan garrantzitsua izan da parte-hartzaile bakoitzarekin izandako harreman zaindua, modu ez inbaditzailean hurbilduz eta beharrezko jarraipena eginez gonbidapenari telefono-deien edo enkontru informalen bidez.

Horrez gain, topaketak errazteko galderen gidoi bat osatu zuen taldeak, elkarrizketan orientazio bezala erabiltzeko. Hala ere, topaketetan ikusi zen elkarrizketak modu naturalean hobeto gartzatzen zirela, zuzentzeko beharrik gabe.

Galdetegiaren oinarriak eta, beraz, parte hartzaileekin lantzeko aurreikusten ziren hizketa-ildoak ziren:

### **Gerturapen pertsonala:**

- Partehartzen genuenon aurkezpena (elkarrizketatuarena eta taldekideena) eta herriarekiko harremana
- Gertaeren testuinguruarekiko gerturapena, elkarrizketatuari gehien eragin dioten gertakarien inguruko solasaldia

### **Biktimen errealitatearen ingurukoa:**

- Biktimei egin beharreko aitortza moten ingurukoa, eta horretarako eragile ezberdinen rola
- Elkarrizketatuak bizi izandako edota nahiko lukeen aitortzaren ingurukoak
- Biktima eta sufritu duten pertsonen arteko harremanen ingurukoak

### **Memoria eta oraina:**

- Herriko giroaz, gertatutakoaz eta egungo egoeraz gogoeta sustatu
- Aurrera egiteko herritarren gaitasun eta erresilientzia prozesuen inguruan solasaldia

Aurreikusitako gidoiak beraz eremu pertsonaletik bultzatzen zuen gogoeta, herrian eragina izan dezaketen hainbat faktore ere landuz. Biktimizazio prozesuaz aparte, horren aurrean sortutako erresilientzia eta gainditze-historiak ere berreskuratu nahi ziren.

Era berean, taldeak landu zituen topaketetarako lekuaren zehaztasunak: biktima edota sufritu duen pertsonarentzat eroso izango zen lekua bermatzea garrantzitsutzat jo zen hasieratik, eta denok lasaitasunez hitz egiteko aukera emango zuen lekua bilatu da betiere.

Taldearen helburua ere bazen, errekonozimendua eta entzutea sustatzeaz haratago, bir-biktimizazio egoerak guztiz ekiditea, eta parte-hartzailearen ongizatea betiere lehenestea.

## BIDERATUTAKO TOPAKETAK

Irizpide hauekin, taldearekin enkontru diskretu eta informal batera gonbidatu zituen taldeak hainbat herritar. Enkontru hauetan giro seguru eta goxo batean gonbidatuen esperientziak entzun ditu taldeak, eta honekin batera, biktimen eta sufritu dutenen aitortzarako bideak eta hautsitako harremanak berreraikitzeke aukerak aztertu elkarrekin.

9 pertsonekin egin dira topaketak 2020-2022 artean, horietako **7 gizona** eta **2 emakume** izan dira. Esan beharra dago, taldeak pertsona gehiagorekin kontaktatu zuela, baina arrazoi ezberdinengatik ez zuten gonbidapena onartu. Hala ere, gonbidapena eta oro har ekimena eskertu eta balioetsi dute denek. Era berean, taldea jabetzen da sufritu duen edo biktima den jende gehiago dagoela Urnietan, baina momentuz ez da lortu pertsona gehiago identifikatzea.

**Giza eskubideen hurrengo urraketak** jasotzen dituzte euren testigantzek:

- Osotasun fisiko, psikiko eta moralerako eskubidearen urraketak.
  - Torturak, tratu txarrak edo zigor anker, gizagabe edo umiliagarriak salatu dituzten pertsonak: **4 pertsona**
- Pertsonen aurkako mehatxu larriak eta jazarpen-indarkeria. Talde honetan sartzen dira "egoera edo mehatxu larrien ondorioz beren bizitzak edo osotasun fisiko/psikikoa arriskuan izan dituzten pertsonak, beren ideiak, lana, erantzukizunak edo jarrera politikoak, lanbidea edo gizarte jardura zirela eta, edo aurreko ezaugarriak zituzten pertsonen senideak izateagatik, jazarri, beldurrarazi eta eraso egin dituzten pertsonak."<sup>1</sup>
  - Bizkartzaina eraman dutenak: **3 pertsona**
  - Agintarien edo segurtasun-indarren jazarpena, larderia eta mehatxuak: **4 pertsona**

Honez gain, giza eskubideen urraketa ez diren baina sufrimendua eragin duten egoera ezberdinak ere azaleratu dira elkarrizketetan: harremanen haustura, gartzeletako bizipen mingarriak, gartzelaratze mehatxuak, bizipen gogorrek utzitako ondorio psikologikoak...

Talde bezala gure irakurketa da elkarrizketatuek eskertu dutela horrelako espazio bat izatea, beste herritarrekin entzute-aktiboa eta solasaldia oinarri izan duen giro erosoan partekatu ahal izatea. Prozesu eta espazio hauen onura ikusi dute elkarrizketatuek, beraien aldetik ere esker ona jasoz. Horrek honelako prozesuen beharrez hitz egiten digu gizarte bezala.

---

<sup>1</sup> "[Memoria partekatu baterantz. Andoain](#)" (Argituz, 2018)

## **PROZESUAREN LEHEN ONDORIOAK ETA HURRENGO PAUSUAK**

Prozesu hau, esan bezala, lehen pauso bat besterik ez da, herrian gertatutako sufrimenduari hurbilketa bat. Taldeak ezagutu dituen bizipen hauek ez dira Urnietan gertatutako guztiaren isla eta pertsona askoren sufrimendua dago oraindik entzungo duen norbaiten zain.

Zentzu honetan, bidea ez da hemen bukatzen. Asko dago egiteko errekonozimenduaren bidean. Hasteko, bizitzaren eskubidearen urraketaren biktimak eta euren familien egoera ezagutzea garrantzitsua da, haien sufrimendurekiko aitortza ere sustatuz herri mailan. Horrekin batera osotasun fisiko, psikiko eta moralerako eskubidearen urraketak eta jazarpen biolentzia bizi izan duten beste herritarrei ere bere bizipena partekatzeko eta eurei ere errekonozimendua emateko aukera luzatzea beharrezkoa da. Azkenik, herriko pertsona orori entzute prozesua zabaltzea komenigarria litzateke, sufritu duten pertsonak bere historia ere parteka dezaten, nahi izanez gero.

Beraz, nahiz eta prozesuari bide asko geratu aurretik biktima eta sufritu duten herritar guztiak aitortza lortzeko, dokumentu honetan islatutako prozesua ere balioan jarri nahi dugu, eta bertatik ateratako lehenengo ikaskuntzak partekatu. Ikaskuntzak pertsonalki bizi eta garatzen badira ere eta, beraz, antzak izan badaitezke ere, jarraian biltzen ditugu taldeak bere baitan identifikatu eta elkarbanatutako esperientziatik ateratako ikaskuntzak. Taldekideok sinesten dugu ikaskuntza hauek hurrengo etapa eta pausuetara ere lagungarri izan daitezkeela.

### **Ikaskuntzak**

#### **Sufrimendua isilean eramaten dute askok**

Pertsona hauetako askok ez dute bere inguruan kontatzen pairatu zutena, arrazoi ezberdinen-gatik (gainditua dutelako, ez dutelako nahi etiketarik jartzea, hurbilenekoei sufrimendua ekiditeko...). Joera hau ikusteak pentsarazten digu gure bizilagun, ezagun edo lagunek ere antzeko bizipenak izan ditzaketela, guk ezer jakin gabe.

#### **Sufritu duten pertsonen aniztasuna**

Jatorri, ideologia, lanbide, adin ezberdinetakoak dira pertsona hauek. Sufrimendu zehatz bat jasateagatik ez du esan nahi ideologia zehatz bateko pertsonak direnik. Estereotipoak gainditu behar ditugu.

#### **Elkar entzuteko espazioen beharra**

Topaketa hauek espazio eroso eta goxoak izan dira askatasunez hitz egiteko. Uste dugu parte hartu duten pertsonen balio izan diela epairik gabeko entzute aktiboa topatzea euren bizilagunengan.

Guretzat ere ikaskuntza baliotsua izan da: entzuten ikasi dugu, eta entzundako bizipen gordinak guregan ere mugitu dute zerbait. Enpatian sakondu dugu topaketa hauei esker, euren egoera hobeto ulertzen dugu orain. Aberasgarria izan da guretzat ere.

Beraz, gure ikuspegitik, espazio positiboak izan dira bai eurentzat, bai geurentzat. Gu euren egoerara hurbiltzeko, eta beraientzat adierazteko eta errekonozimendu bat sentitzeko.

Lan hau egiteko inspirazio izan ditugu beste esperientzia batzuk, Lasarteko herritarrek biktimekin egindako prozesua adibidez. Merezi du kontuan hartzea esperientzia hauen eragina herritik kanpo ere zabaltzen dela.

### **Erronka: bizipen ezberdinen topaguneak**

Elkar entzuteko espazio hauen esperientzietan sakontzea da erronka nagusia guretzat. Sakonketa hau hainbat modutara garatu daiteke, adibidez bizipen ezberdinak izan dituzten pertsonen arteko topaketak sustatuz, iraganeko etsaitasun logikak gaindituz elkar ulertzearen eta elkarren minak aitortzearen bidez. Eragile ezberdinok lagundu dezakegu bide horretan, bakoitzak bere aukera eta mugen arabera. Elkarrizketaren boterea aprobeztatu dezagun!